

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

1340

AGINDUA, 2024ko ekainaren 25ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, Segurtasun Saileko behin-behinekoko langilea izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.1 artikuluan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19.1.a) eta 30.3 artikuluetan eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritako ahalmenez baliatuz, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin bat etorritz, eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez gero, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ana Iturriaga Madariaga andrea, Euskadiko segurtasun publikoaren plana garatzeko aholkulari izendatzea, zuzendari mailarekin (5301 kodea, 1 dotazioa), Segurtasun Sailean.

Bigarrena.— Interesdunak aholkuak emango dizkio Segurtasun Saileko sailburuari.

Hirugarrena.— Interesdunak eskubidea izango du, horretarako legez eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, Goi-kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1 eta/edo 5.1 artikuluetan jasota dagoen aurreikuspenen bat edo guztiak aplika dakizkion.

Laugarrena.— Izendapen honek 2024ko ekainaren 25etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Era berean, agindu honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana automatikoki amaituta geratuko da aholkulariak betetzen duen konfiantza- edo aholkularitza-funtzioaren hartzailea den agintariak kargua uzten duenean, lehenago edozein momentutan ezeztatzeko dagoen aukerari uko egin gabe.

Bosgarrena.— Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 25a.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.